



JOSU SANTESTEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

## Galderak

BOTEREA GALDU ZUTENEAN, 1936an, 3.000-4.000 lagun garbitu zituzten bide bazterretan, gerra-frontea urruti zegoen arren. 1978an, ezarri nahi zuten erregimena kili-kolo zitekeela uste izan zutenean, German Rodriguez hil eta Sanferminak leherrarazi zituzten. Zer egiteko prest egongo dira, 2014an edo 2015ean, erregimena hondora joan daitekeela susmatzen badute?

Zer zentzu demokratiko daukate bide bazterreko garbiketa masibo hori eragin zutenen ondorengo politikariek, 78 urteotan, eta gaur egun ere, epaiz kanpoko fusilamendu horiek kondentzen ez dituztenek? Gai dira joko demokratiko, esan dezagun, estandar baterako?

Nafarroa ez zen izan behar nafarrek nahi zutena, urte luzeetan entzun dugun *mantra* ezagunaren arabera? Orduan, zergatik ebatsi zaizkigu erabakiak oro, Foru Hobekuntzaren bozketatik hasita? Estatu arrazoia arrazoi demokratikoaren gaintik dago? Hala gertatzen denean erregimen batean, zer izen dauka, nola deitzen zaio? Tutorretza behar dugun susmagarriak, eroak, adingabeak... gara?

Roldan eta Urralbururekin ustelkeriaren marka guztiak apurtu zituen eta orduetik erregeneraziorik ezagutu ez duen PSNk, erregimenak bahituta egoteari uzten ahal dio?

*Legezko partidu guztiak dira legezkoak, edo batzuk besteak baino legezkoagoak dira?*

Zergatik auzipetu ditu CAMEko zuzendaritzakoak Auzitegi Gorenak, eta delitu-zantzu berdin-berdinak edukita, bakean utzi CANekoak?

Zer nolako elkarbizitza sor liteke herrialdeko bigarren indarra, oposizioko lehena, *naphtheidera* kondentzen duen praktika politikotik? Estigmatizazioa eta bazterkeria sistematikoa eta kultura autoktonoa kolonialismoaren moldeez hankapetzea izan daitezke elkarbizitzaren oinarriak?

Zergatik errepikatu behar du Ayerdik Bilduk balizko zentsura mozio baten alde bozkatzea eta Bildurekin hitzarmen bat egitea ez dela gauza bera? Zergatik, berak ere badaki mundu guztiak badakiela hori? Zergatik gerta daitezke Pernandoren egia bat argumentu politikoaren mailara igo behar izatea?

Legezko partidu guztiak dira legezkoak, edo batzuk besteak baino legezkoagoak dira? Batzuk besteak baino legezkoagoak badira, hartuko dituzte anomalia hori konpontzeko neurriak? Nork hartuko ditu? Eta zer neurri izango da? Ilegalizazioa?

Errotarri lako ostia gehiegi irentsarazi dizkigute, oso aspalditik, “normalidade demokratikoa” horixe delakoan, eta salbuespena beharko lukeena ohiko bihurtu da. Horregatik, benetan, demokrazia, edo demokrazia-itxura bat, bederen, posible al da Nafarroan dagoeneko? ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

## Nomadak

MAITE DITUT nomadak, ijitoak eta bestelakoak, bizitzaren metafora direlako. Ibilian da beren egoitza bakarra. Bidean bizi dira, askotan, bizibide jakinik gabe, eta erreze-loak sortuz. Baina zein da sortzen duten erreze-loa? Zer da lapurtzen diguten hori?

Agian, guk bizitzarako genuen segurtasun bat da osten digutena. Izan ere, nomada batentzat, edo ibilian bizi denarentzat, zer da eta non da herria? Non da herri eta non da deserri ibilian bizi den batentzat? Ez ote dabilta batetik bestera beren izatearen garraio? Begitan hartuak ditugu iji-

toak eta nomadak eta ibilian doazenak gure sinesmen bat auzitan jartzen digutelako, gure herria, edo nahi bada kokapen geografiko finkoa.

Maite ditut nomadak bizitza bidea dela erakusten digutelako, gure bizi lekua tarte bat baino ez dela, eta tarte hori mapetan koka ote daitezkeen, herriek aingurarik behar ote duten, pentsakor uzten nautelako. Maite ditut ijitoak, gure etxea, sartu, dena hankaz gora jarri, eta galderaz betea uzten dutelako. ■

